

2019 / 2020 ikasturtea

**ESKLEROSI ANIZKOITZAK PERTSONARENGEN DUEN ERAGINA ETA HONI  
EMAN BEHARREKO ERIZAINTZA ZAINKETAK**

Nora Casquero Oyarzabal



## LABURPENA

**Sarrera:** esklerosi anizkoitza (EA) nerbio-sistema zentralari eragiten dion gaixotasun kroniko, autoimmune, desmielinizatzale eta hanturazkoa da. Gaixotasunaren intzidentziak gora egin du azken urteotan mundu osoan, eta gaixotasuna sendaezina den heinean, paziente hauen bizi-kalitatean eragin handia du. Erizainaren papera funtsezkoa da azken hau hobetzeko, nahiz eta ez egon guztiz protokolizatuta honen eginbeharrok.

**Helburuak:** Ia honen helburu nagusia EAk pertsona helduarengan duen eragina aztertzea eta alor honetan erizainak eman ditzakeen erizaintza zainketak zehaztea da.

**Metodología:** errebisio bibliografikoa egin da PIO egitura batetik abiatuz. Honetarako ondorengo datu baseak aukeratu dira: *Biblioteca Virtual en Salud, Medes, Pudmed, Cuiden* eta *Dialnet*. Horrez gain, web-orrialde ezberdinak konsultatu dira: *European Multiple Sclerosis Platform* eta *Fundación Esclerosis Múltiple Madrid*. Guztira, 32 aipu erabiliz errebisioa burutzeko.

**Emaitzak:** kaltetuta dagoen nerbio-sistema zentraleko atalaren arabera, EAn sintoma ezberdinak azalduko dira. Sintoma fisiko adierazgarriena eta ezgaitasun handiena sortzen duena nekea da, arlo psikosoziala ere kaltetuta agertuz. Honek guztiak eragiten du pertsonen bizi-kalitatea okerragoa izatea, populazio orokorrarekin alderatuz. Honen inguruan erizainak eman beharreko zainketen kontsentsu bat ez egon arren, ebaluazioan, arretaren koordinazioan, heziketan, kontaktuaren maneiuan... jarduten dute hauek. Hainbat ikerketek baiezta dute erizaintza zainketa ezberdinen eragina, paziente hauen bizi-kalitatea hobetze aldera.

**Eztabaida:** EA duten pazienteei gehien eragiten dien sintoma nekea dela bat datozen autore ezberdinak, alderdi psikosoziala alde batera utzi gabe. Zaila izan da erizainaren papera zehaztea, ez dagoelako kontsentsu bat honen inguruan, baina ikerketek erakutsi dute zainketa ezberdinak bizi-kalitatean eragin positiboa dutela. Artikuluek azpimarratzen dute bai ikerketan, eta bai protokolo eta giden eraketan dagoen hutsunea.

**Ondorioak:** gaixotasunaren ondorio diren zeinu eta sintoma guztiak pazienteen bizi-kalitatea kaltetzen dute. Erizaina ezinbesteko pilare bilakatzen da paziente hauen artatzean, nahiz eta bere papera guztiz finkatuta ez egon. EAren inguruan espezializatutako erizainaren kontzeptua oraindik oso zabalduta egon ez arren, ekartzen dituen onurak direla eta garatu beharreko zerbait dela ondorioztatu da.

**Hitz gakoak:** esklerosi anizkoitza, bizi-kalitatea, erizaintza zainketak.



## AURKIBIDE OROKORRA

1. SARRERA .....	1
2. HELBURUAK.....	4
3. METODOLOGIA .....	4
3.1 BILAKETA BIBLIOGRAFIKOAREN ESTRATEGIA .....	4
3.2 BARNERATZE-BAZTERTZE IRIZPIDEAK ETA ERABILITAKO FILTROAK .....	5
3.3 BILAKETA BIBLIOGRAFIKOAREN EMAITZAK.....	6
4. EMAITZAK.....	7
4.1 ESKLEROSI ANIZKOITZAK PAZIENTEARENGAN ERAGITEN DITUEN ONDORIOAK .....	7
4.1.1 ONDORIO FISIKOAK .....	8
4.1.2 ONDORIO PSIKOLOGIKOAK.....	9
4.1.3 ONDORIO SOZIALAK .....	10
4.2 ESKLEROSI ANIZKOITZAREN ONDORIOEI AURRE EGITEKO ERIZAINTZA ZAINKETAK .....	11
4.3 ESKLEROSI ANIZKOITZAREN INGURUAN ESPEZIALIZATUTAKO ERIZAINA .....	14
5. EZTABADA.....	16
6. ONDORIOAK.....	18
7. BIBLIOGRAFIA.....	20
8. ERANSKINAK.....	26

## TAULEN AURKIBIDEA

1. taula: PIO estrukturan oinarrituta aukeratutako DeCS, MeSH eta hitz gakoak. ....	5
2. taula: web-orrialde ezberdinatik lortutako dokumentu ezberdinak. ....	6

## **ERANSKINEN AURKIBIDEA**

<b>1. eranskina:</b> Haynes-en piramidea .....	26
<b>2. eranskina:</b> Medes datu-basean erabilitako bilaketa-estrategia.....	26
<b>3. eranskina:</b> BVS metabolatzailean erabilitako bilaketa-estrategia. ....	27
<b>4. eranskina:</b> Cuiden datu-basean erabilitako bilaketa-estrategia. ....	29
<b>5. eranskina:</b> Pudmed datu-basean erabilitako bilaketa-estrategia. ....	29
<b>6. eranskina:</b> Dialnet datu-basean erabilitako bilaketa-estrategia. ....	30
<b>7. eranskina:</b> erabili diren artikuluak ebidentzia-mailaren arabera sailkatuta.....	31

## LABURDUREN HIZTEGIA

**EA:** esklerosi anizkoitz

**OME:** Osasunaren Mundu Erakundea

**BVS:** Biblioteca Virtual en Salud

**EMSP:** European Multiple Sclerosis Platform

**FEMM:** Fundación Esclerosis Múltiple Madrid

**DeCS:** Descriptores en Ciencias de la Salud

**MeSH:** Medical Subject Headings

**EBOJ:** Eguneroko Bizitzako Oinarrizko Jarduerak

**NANDA:** North American Nursing Diagnosis Association

**NICE:** National Institute for Health and Care Excellence



## 1. SARRERA

Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, gaixotasun neurologikoak nerbio-sistema zentral eta periferikoari eragiten dieten gaixotasunak dira (1). Horietako bat da zehazki esklerosi anizkoitza (EA). Nahiz eta 1849. urtean diagnostikatu zen lehen aldiz gaixotasun hau, Holandan XIV. mendean EAren sintoma posibleak zituen paziente baten deskribapena da ezagutzen den lehen hastapena. Paziente honen izena Santa Lidwina de Schiedam zen, 16 urte zituela ezusteko erorketa bat jasan zuen eta hortik aurrera EAren sintomak pairatzen hasi zen. 1968. urtean Jean-Martin Charcot izan zen gaixotasun honen deskribapen anatomoklinikoa egin zuen lehen pertsona (2).

EA nerbio-sistema zentralari eragiten dion gaixotasun kroniko, autoimmune, desmielinizatzale eta hanturazkoa da. Oinarri neurologikoa duten ezgaitasunen artean, heldu gazteetan gehien ematen dena da (2).

Neuronen axoiak mielinazko zakuetaz inguraturik daude, eta hauek inputsu nerbiosoen transmisiōan laguntzen dute gorputz osoko nerbio-sistema zentral eta periferikoan. EA duten pazienteen kasuan, mielina hau kaltetuta dago, plaka edo lesioak agertuz. Ondorioz, inputsu nerbiosoen transmisiōa asaldatu, eraldu edo desagertu egiten da eta honela agertzen dira sintoma ezberdinak, kaltea eman den gunearren araberakoak direlarik (3,4).

Gaixotasunaren garapen klinikoaren arabera lau azpitalde banatzen dira (2):

- Errepikari-atzerakaria: pazienteen %85ak honela hasten du gaixotasuna. Sintoma neurologikoen koadro akutuekin ezaugarritzen da, denborarekin errekuperatzen direnak.
- Sekundarioki progresiboa: aurreneko mota diagnostikatu eta 10-20 urte beranduago azaltzen da. Errekuperazioak gero eta gutxiago ematen dira, eta honen ordez okerragotze gradual bat pairatzen dute pazienteek. Kasu horetan, sekuela neurologikoak gelditzen dira.
- Primarioki progresiboa: falta diren pazienteen %15ak hasieratik sintoma neurologiko mailakatuak eta gradualak pairatzen dituzte, errekuperaziorik gabe.
- Atzerakari progresiboa: primarioki progresiboaren azpitalde bat da, non pazienteak progresio motel bat jasaten duen berrerortze irregularrekin.

Gaixotasunaren jatorria oraindik ez da argitu baina kausa genetikoa kontsideratzen da, inguruneko faktoreek eraginda. B ultramore izpien esposizio urria eta ondoriozko D bitaminaren falta, Epstein-Barr birusaren infekzioa, beste infekzio birikoak, emakumezkoia izatea, latitude altuetan bizitzea, obesitatea izatea edo tabakoa

kontsumitzea dira gaur egun baieztatuta dauden arrisku faktoreak (2,3,5). Ingurugiroko arrisku faktoreekin kontaktuan jartzen denetik pazientea, gaixotasuna azaleratu arte 10-20 urte igaro daitezkeela diote adituek (5).

EAk fase ezberdinak ditu, fase asintomatikoa, prodromikoa eta sintomatikoa. Kaltetuta dagoen nerbio-sistemako atalaren arabera, sintomatologia ezberdina izanda (5). Manifestazio klinikoa, desmielinizazio-fokoa eman den gunearren araberakoa izango da (2). Ohikoenen artean, mina, nekea, dardara, sentsibilitate galera eta ikusmen asaldurak daude (5).

Gaixotasuna sendaezina denez, tratamenduak agerraldiak ekiditera edo murrizteria bideratuta daude (2). Bi motatakoak dira, alde batetik gaixotasuna eraldatzeko erabiltzen direnak, eta bestetik, terapia sintomatikoa. Gaixotasuna eraldatzeko tratamenduen artean immunoezabatzaileak eta inmunomodulatzaileak dira erabiltzen direnak. Aldiz, tratamendu sintomatikoen kasuan pazienteak dituen beharren araberakoa izango dira. Erabilienak, antikolinergikoak gernu-maskuriaren disfuntzioarendako eta min neuropatikoarentzako medikamentuak dira (2,5).

Gaixotasun honen intzidentzia, ekuatoreko lerrok urrentzen joan ahala handitzen doa. Hau da, kasu kopurua gutxitzen doa ekuatoreko lerrora gerturatzean, eta areagotzen honetatik aldetzen doan heinean. Joera hau ikusita, ikerketa asko jarri dira martxan gaixotasun autoimmunea denez, kausa genetiko eta ingurugirokoak zeintzuk diren zehazteko asmotan (6,7). Honi guztiari gehitu behar zaio EA ohikoagoa dela emakumezkoetan, gaur egun 3:1-eko proportzioa mantentzen delarik. Nahiz eta duela zenbait urte, 1900. urtean hain zuzen, sexu ratioa berdinduta egon (2,5). Hala ere, esan beharra dago gizonezkoen kasuan gaixotasuna era bortitzago batean ematen dela (8). Gainera, arraza zuriko pertsonetan ohikoagoa da, arraza beltz edo asiatikoetan baino (5).

Azkenik, diagnostikoaren adinari dagokionez, 19-33 artean dago batezbestekoa, nahiz eta intzidentzia maximoa emakumeetan 22-23 urteen artean egon eta gizonezkoetan 23-25 artean (6). Beraz, kasu pediatrikoak ez dira batere ohikoak gaixotasun honetan (5).

*Atlas Mundial de la Esclerosis Múltiple*-ren arabera, EAk mundu mailan 2,3 milioi pertsonei eragiten die, intzidentzia 3,6 pertsona/100.000 biztanleko delarik (9,10). Intzidentzia altueneko guneak, Europako iparraldea, Espana Batuetako iparraldea, Kanadako hegoaldea eta Zelanda Berria dira (3). Europa mailan aldiz, 600.000 pertsonek pairatzen dute gaixotasuna (2). OMEk argitaratutako datuen arabera, bataz-besteko intzidentzia 3,8 pertsona/100.000 biztanleko eta prebalentzia 80/100.000

biztanlekoa da (11). Espainia-mailan *Atlas Mundial de la Esclerosis Múltiple*-ren arabera, 46.000 pertsonek pairatzen dute gaixotasuna. Intzidentzia, 4 persona/100.000 biztanleko da, eta prebalentzia aldiz 100/100.000 biztanleko (9). Datu hauek azken urteotan gora egin dutelarik, Espainia gaixotasuna pairatzeko arrisku handiko gune batean kokatuz (7). Euskal Autonomia Erkidegoan, 2.600 pertsonek dute gaixotasuna diagnostikatuta (11). Azkenik, Gipuzkoaren kasuan prebalentzia 75-100/100.000 biztanlekoa da (8).

Azken urteetan, gaixotasunaren inguruan eman diren aurrerakuntzak direla eta, EAn espezializatutako erizain kopuruak gora egin du Europan. Hala ere, herrialde ezberdinatan erizainak jokatzen duen papera ezberdina da, izan ere oraindik ez dago zehaztuta zein deitu daitekeen “EAre erizain espezialista”, ez dagoelako kontsentsu bat honen formazio, heziketa eta trebetasunetan. Hala nola, *European Multiple Sclerosis Platform*-ek (EMSP) eskaintzen du EAn espezializatutako erizaina izateko online ikastaroa, hau izanik artikuluek gehien aipatzen duten bidea (12).

Gure inguruan, erizain orokorrak egiten du paziente hauen jarraipena, eta honek egunerokotasunean sintomen maneuan, frogatzen ezberdinan emaitzen interpretazioan, diagnostiko berrien komunikazioan, eta paziente eta familiarren aholkularitzan jarduten dute. Aurrez aipatutako tratamenduek, pertsonen sistema immunologikoa kaltetzen dute modu ezberdinan, eta erizainak honen monitorizazioaren ardura ere hartzen du, baita honen atxikitura bermatzen dela ziurtatu, eta azkenik bigarren mailako efektuen kontrola eraman (13). Hala ere, beste lurralte batzuetan ez bezala, gure inguruan hauen papera ez dago guztiz protokolizatua (12).

Europa-mailan egin den ikerketa baten arabera, EA duten pazienteekin lan egiten duten erizainen bosten batek adierazi du informazio eta heziketa falta sentitzen duela (12). Gainera zehazten dute erizainak eskaini beharreko zainketa tekniko eta emozionalak zehazteko ikerketak oraindik ez daudela guztiz garatuta (14). Erizainak eman beharreko arreta holistikoa da artikulu askok azpimarratzen duten zerbaite. Hau honela, beharrezko da erizainak heziketa berezi bat jasotzea paziente hauek dituzten beharrak ezagutzeko (14).

Gaixotasun honen konplexutasuna eta erizainaren papera gure inguruan oraindik zehaztu gabe dagoela ikusita, errebisio narratibo bat burutu da jarraian erizainak paziente hauen bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin burutu ditzakeen ekintzak zehazteko asmotan (12).

## 2. HELBURUAK

**Helburu orokorra:** EAk pertsona helduarengan duen eragina aztertzea eta alor honetan erizainak eman ditzakeen erizaintza zainketak zehaztea.

**Helburu zehatzak:**

- EAk pazientearengan eragiten dituen ondorioak deskribatzea (fisiko, psikologiko, nahiz sozialak).
- Ondorio hauei aurre egiteko erizaintza zainketak identifikatzea.
- EAren inguruan espezializatutako erizainaren beharra aztertzea.

## 3. METODOLOGIA

Aurretik aipatutako helburuei erantzuteko asmoarekin, errebisio bibliografiko bat burutu da.

### 3.1 BILAKETA BIBLIOGRAFIKOAREN ESTRATEGIA

Informazio fidagarriena eta garatuena lortzeko bilaketa bat egin da 2019ko azaroaren 12tik, 2020ko urtarrilaren 30era bitartean. Hau honela, informazioa hainbat datubaseetatik lortu da: *Cuiden*, *Pudmed*, *Medes* eta *Dialnet*. Horrez gain, *Biblioteca Virtual en Salud (BVS)* metabolatzailean ere erabili da. Gainera, bi web-orrialde kontsultatu dira: *European Multiple Sclerosis Platform (EMSP)* eta *Fundación Esclerosis Múltiple Madrid (FEMM)*. Aipatu beharra dago Donostiako Unibertsitate Ospitalean Neurologiako zerbitzuan EA duten pazienteak hartatzen lan egiten duen erizaina ere kontsultatu dela, berak burutzen duelako Gipuzkoa-mailan paziente hauen jarraipena.

Lanerako informazioaren bilaketa egin aurretik, PIO estruktura formulatu da:

- **P (Patient / pazientea, taldea)** → EA gaixotasuna pairatzen duen pertsona heldua.
- **I (Intervention / esku hartza)** → Erizaintza zainketak ematea.
- **O (Outcome / emaitzak)** → Bizi-kalitatea hobetzea eta osasunean duen inpaktua murritztea.

Beraz, ikerketa galdera hau sortu da: *EA gaixotasuna pairatzen duen pertsona helduan, zeintzuk izango dira eman beharreko erizaintza zainketak bizi-kalitatea hobetzeko eta osasunean duen inpaktua murrizteko?*

PIO estruktura zehaztu ostean, lan honetarako egokiak diren *Thesaurus-eko Descriptores en Ciencias de la Salud (DeSC)*, *Medical Subject Heading (MeSH)* terminoak eta hitz gakoak aurkitu dira (Ikus 1. taula). Gainera, bilaketa egiterako orduan,

gaira gehiago egokitzeko eta artikulu zehatzagoak aurkitzeko *AND* eta *OR* operadore bolearrak erabili dira, deskriptoreen konbinazio ezberdinak egiteko.

**1. taula:** PIO estrukturan oinarrituta aukeratutako DeCS, MeSH eta hitz gakoak.

PIO EGITURA		DeCS	MeSH	Hitz gakoak
P (Patient)	<i>Esclerosis múltiple</i> <i>Impacto psicosocial</i> <i>Impacto en la salud</i>	<i>Multiple sclerosis</i> <i>Psychosocial impact</i> <i>Impacts on health</i>		
I (Intervention)	<i>Atención de enfermería</i> <i>Enfermería</i>	<i>Nursing care</i> <i>Nursing</i>	<i>Multiple sclerosis nurse professional</i>	
O (Outcome)	<i>Calidad de vida</i> <i>Comodidad del paciente</i> <i>Bienestar social</i>	<i>Quality of life</i> <i>Patient comfort</i> <i>Social welfare</i>		

### **3.2 BARNERATZE-BAZERTZE IRIZPIDEAK ETA ERABILITAKO FILTROAK**

Bilaketari mugak ezartzeko asmotan eta artikuluak iragazi ahal izateko, barneratze- eta bazertze-irizpideak zehaztu dira:

- **Barneratze-irizpideei** dagokienez, azken hamar urtetakoak izatea eta hizkuntza (ingelesa eta gaztelera) izan dira. Gainera, gai nagusitzat EA pairatzen duen pazientea izatea izan da irizpide garrantzitsuena, ez zaintzailea edo familia. Azkenik, populazio-diana 18 urtetik gorakoetan finkatu da, pediatriako kasuak baztertuz, sarreran azaldu den bezala honelako kasuak ez direlako ohikoak.
- Aldiz, **bazertze-irizpideei** dagokienez, kasu pediatrikoak aztertzen dituztenak (18 urte baino gazteagoetan) kanporatu dira. Baita ere beste profesional batzuen zereginetaz hitz egiten duten artikuluak (hala nola, psikologo, gizarte-langile edo fisioterapeutaren kasuak) eta azkenik orain dela hamar urte baino lehenago publikatutako artikuluak.

Artikuluek baldintza hauek betetzeko asmoz zenbait filtro aplikatu dira datu-base ezberdinetan. Hauen artean, aipatu beharra dago hasieran bilaketa azken hamar urteetan zentratu dela, baina gero zehatzago bihurtzeko azkeneko bost urteetakoak izaten saiatu da, nahiz eta interesgarriak ziren lehenagoko beste artikulu batzuk hautatu. Horrez gain, hizkuntza gaztelera edo ingelesa izatea izan da aplikatu den beste iragazki bat. Testua eskuragarri ez zegoen kasuetan *Google Academic* bilaketa motorra erabili da bertsio osoa lortzeko asmoarekin. Horrez gain, zarata handia zegoen bilaketen kasuan, errebisio-sistematikoa izatearen filtroa ere aplikatu da, Haynes-en piramidearen arabera (16) ebidentzia altueneko artikuluak lortzeko helburuarekin, baita bilaketa azken bost urtetara edo kasu batean hiru urtetara mugatu da, artikulu berrienak lortzeko.

Ondoren, aurkitutako artikuluen artean, aukeraketa bi zatitan egin da. Lehenengoan, izenburua eta laburpena irakurri dira, barneratze/baztertze irizpide eta lanaren helburuekin bat datoztela ziurtatzeko. Ondoren, artikuluen irakurketa sakona egin da, errebisioa egiteko baliagarriak direnak soilik aukeratzeko.

### **3.3 BILAKETA BIBLIOGRAFIKOAREN EMAITZAK**

Hau guztia kontuan hartuta, bilaketa estrategiaren taulak osatu dira erabilitako datu-base bakoitzean (Ikus 2.- 6. eranskinak).

Behin artikuluen aukeraketa eginda eta errepikatuak zeudenak alde batera utzita, 28 artikulu hautatu dira. Aipatu beharra dago, artikulu batek zitzen zuen praktika klinikoko gida bat ere erabili dela lana burutzeko. Beraz, azkenean 29 lanekin geldituz.

Lehen aipatu bezala web-orrialde ezberdinak ere kontsultatu dira: *European Multiple Sclerosis Platform* (EMSP) eta *Fundación Esclerosis Múltiple Madrid* (FEMM). Hauen informazioa publiko orokorrarentzat zuzenduta zegoenez eta ez arlo zientifikora, hauek eskaintzen dituzten dokumentuetara jo da hauetako batzuk erabili direlarik errebisioa burutzeko (Ikus 2. taula).

**2. taula:** web-orrialde ezberdinatik lortutako dokumentu ezberdinak.

<b><i>European Multiple Sclerosis Platform</i></b>	<b><i>MS Nurse Professional</i></b>
<b><i>Fundación Esclerosis Múltiple Madrid</i></b>	<b><i>El papel de los enfermeros en la EM</i></b>

Beraz, berrikuspen bibliografikoa burutzeko, guztira, 32 lan erabili dira; praktika klinikoko gida 1, 2 errebisio bibliografiko sistematiko, 5 errebisio bibliografiko narratibo, 14 ikerketa, 3 entsegu kliniko aleatorizatu, 2 kasu kliniko, zuzendariarentzat gutunak 2, adituaren iritzi 1 eta web-orrialdeetatik lortutako 2 txosten. Guztiak, Haynes-en piramidea (16) oinarritzat hartuz, ebidentzia-mailaren arabera sailkatu direlarik (Ikus 7. eranskina).

## 4. EMAITZAK

### 4.1 ESKLEROSSI ANIZKOITZAK PAZIENTEAREN ERAGITEN DITUEN ONDORIOAK

1900. urtean egin zen EA eta bizi-kalitatea erlazionatzen zituen lehen ikerketa. Bertatik, gaur egunerarte beste hainbat egin dira aztertzeko faktore ezberdinek nola eragiten duten gaixotasun hau duten pertsonen bizi-kalitatean (17). EAren sintomak aldakorrak dira eta bizi-kalitatean eragina dute, kaltetuta dagoen nerbio-sistema zentraleko atalaren arabera (3,4,9,12,18,19,20). Gaixotasuna duten pertsonak egunero aurkitzen dira ondorio fisiko, mental eta emozionalen aurrean (8,22).

Gaixotasuna krisi edo agerraldiekin ezaugarritzen da urteetan zehar (7). Hauetan arrestian aipatu diren hondatutako mielina zakuak birstortu eta sintomak desagertu daitezke, baina mielina ezin izaten da kasu guztieta erabat konpondu. Gaixotasuna aurrera joan ahala, mielina suntsitu egiten da eta inputsu nerbiosoak gero eta motelagoak bihurtu edo desagertu egiten dira, sintomak okerragotuz (3). Hau dela eta, orokorrean gaixotasunaren hasierako faseetan sintoma hauek ez dituzte eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak (EBOJ) kaltetzen, hala ere, aurreragoko faseetan kaltetuta agertzen hasten dira, bataz beste diagnostikoa jaso eta hamar urtetara (9). EBOJak kaltetuta azaltzearen ondorioz, bizi-kalitatea okerragotu egiten da (23). Nafarroan egin zen ikerketa baten arabera, pazienteen %43,6ak behar zuen laguntza EBOJetan (4).

EA pairatzen duten pertsonetan bizi-kalitatea baxuagoa da, populazio orokorrarekin alderatuz, baita beste gaixotasun kroniko batzuekin alderatuz ere (8,22,24). Asko izan dira ikerketak hau frogatu dutenak (18,24,25,26). Hala nola, lehen aipatutako Nafarroan egin zen ikerketaren arabera pazienteen %17,1ak adierazi zuen bere bizi-kalitatea baxua zela (4).

Jarraian, EA pairatzen duten pertsonek dituzten ondorio fisiko, psikologiko eta sozialak aztertuko dira hurrenez-hurren.

#### 4.1.1 ONDORIO FISIKOAK

Lehen aipatu den moduan nerbio-sistema zentraleko atalaren arabera, sintomak ezberdinak izango dira. Normalean lehendabizi azaltzen direnak pazientearen ikusmena kaltetzen dutenak dira, hauen %15ak hasieran neuritis optikoa edo erretrobulbarra azalduz (3). Jarraian, beste hauek agertu daitezke (4,7,9,10,18,19,20,21): paralisia, dardarak, inurridura edo erredura sentsazioak, indar eta sentsibilitate galera, arazo sexualak edo disfuntzio sexuala, alterazio urologikoak, koordinazio falta, nekea, mina, espasmoak, ahuldade muskularra, bertigoak, ataxia, ikusmen arazoak (ikusmen lausoa, diplopia edo neuritisa), espastizitatea eta ahuldadea.

Aipatutako sintoma guzti hauek murrizketak sortzen dituzte lan-arloan, arlo sozialean, fisikoan, afektiboan, sexualean eta hezkuntzakoan, hauek EBOJak kaltetuz (7).

Bizi-kalitatean eragina duten faktore fisikoien artean, garrantzitsuenak jarraian azalduko dira.

##### 4.1.1.1 NEKEA

Nekea, energia fisiko edo mental falta moduan definitzen da, pazienteak edo bere zaintzaileak antzematen duena (19,27). Kontuan izan behar da hasiera batetik sintoma hau subjektiboa eta multidimentziala dela (27).

Prebalentzia altuko sintoma da EA duten pazienteen artean, pazienteen %80-90ak adierazten dutelarik (3,7,17,19,21,27,28). Gainera, ezgaitasun handiena sortzen duen sintoma da, erresistentzia fisikoa murriztea eragiten duelako. Askotan, ondorio negatibo asko ekarriz, hala nola, pazientearen ardurak baztertzea, lana uztea edo isolamendu soziala (17,19,27). Horrez gain, lo egiteko arazoak, depresioa, estresa, aktibitate fisikoaren murrizketa, antsietatea... ere eragin dezake (19,27,28).

Kontuan eduki behar da sintoma hau tratamendu farmakologiko egokiarekin kontrolatu daitekeela eta zenbait ikerketek erakutsi dute ariketa fisikoa neurrian egiteak ere nekearen larritasun-mailan eragin positiboa duela (3,27). Kontuan izanez, beroarekin eta gehiegizko ahalegin fisikoarekin okerragotu egin daitekeela (28).

##### 4.1.1.2 MINA

Mina ere ezaugarri ohiko bat da EAn, pazienteen %86ari eragiten dielarik (17). Min kronikoa gaixotasun honetan normalean mielopatiarekin erlazionatzen da, eta emakumeetan eta pertsona adinduetan azaltzen da gehienbat, normalean gaixotasunak bost urteko eboluzioa edo gehiago duenean. Min kronikoaren nahasmendu ohikoenak bizkarreko mina eta hanketako espasmo mingarriak dira (19).

Sintoma honek eragin handia du EBOJetan, zuzenki bizi-kalitatean inpaktu negatiboa eraginez (17,19).

#### ***4.1.1.3 ESPASTIZITATEA***

Honela definitzen da: nahasmendu motorea, non tonu muskularraren areagotze bat ematen den. Honek mina, zurruntasuna, gernu-sistemako asaldurak, loaren alterazioak, ibiltzeko zailtasunak, espasmo muskularrak, esfinter ezberdinen asaldurak eta nekearen areagotze bat ekartzen du (10).

Pazienteen %84ari eragiten dion sintoma da. Hau dela eta, pazienteen bizi-kalitatean eragin nabarmena du, beraien independentzia murriztuz eta egunerokotasuneko jarduerak mugatzuz (10).

#### **4.1.2 ONDORIO PSIKOLOGIKOAK**

Beharrezko ikusten da arlo fisikoaz gain, arlo psikosoziala ere lantza gaixo hauekin, diagnostikoak, eboluzioak eta pronostikoak sortutako ondorioak murrizteko helburuarekin (7,24). Ikerketa askok azpimarratzen dute pertsona biopsikosozialtzat tratatzearren beharra, hauetako ardatz bakoitza kontuan izanez (7,21,24,29). Gaixotasunaren diagnostikoak inpaktu emozional handia du pazientearengan, bizitzako etapa emankorrenean ematen delako eta beraien etorkizuneko bizi-proiektua garatzen aurkitzen direlako askotan (4,7).

Ondorio psikologikoak aztertzean, hauek aurkitzen dira gaixotasunarekin erlazionatuta (4,7,8,19,20,21,26): antsietatea, depresioa, autokonfidantza baxua, lo hartzeko arazoak eta estresa.

Beste alde batetik, ondorio kognitiboak ere ugariak dira, pazienteen %90ak pairatzen dituztelarik (8,17): kontzentrazioa mantentzeko arazoak, oroimen arazoak, prozesu mentalen moteltzea, memoria galera, informazioa prozesatzeko abiaduraren murriztea eta arrazonamendu galera (7,8,9,19,26). Frogatuta dago honek guztiak bizi-kalitatean eragina duela, EBOJak zaitzen dituelako (8).

EAk ziurgabetasun handia sortzen du pazientean eta familiar, berarengan eragiten duten faktore anitzengatik. Faktore batzuk aldagariak dira, baina beste batzuk aldiz ez, eta pazienteak hauekin bizitzen ikasi behar du (29).

Evidentzia zientifikoak erakusten duenaren arabera, ezgaitasun-maila sintoma hauekin erlazionaturik dago. Horregatik gomendatzen da zainketak egoera psikologiko eta emozionalera ere bideratuta egotea, aurre egiteko teknikak erabiliz sintoma hauek murrizteko eta ondorioz bizi-kalitatea hobetzeko (29).

Gaixotasunarekin erlazio handiena duten ondorio psikologikoen artean depresioa, ansietatea eta estresa daude (7,9,26).

#### ***4.1.2.1 DEPRESIOA***

Depresioa da osasunarekin erlazionatutako bizi-kalitatean eragin handiena duen sintoma (8,17,28). Depresioaren intzidentzia EA duten pazienteetan %50ekoa da, populazio orokorrean %15ekoa den bitartean (21,22,30). Hala ere, uste da depresioa infradiagnostikatuta eta modu ezegokian tratatuta dagoela paziente hauen kasuan (30).

Ikerketa ugarik erakutsi dute honen erlazioa aurretik aipatutako beste sintoma hauekin: nekea, disfuntzio fisikoa, alterazio kognitiboak eta mina (17,28). Gainera, tratamenduaren atxikimenduaren gutxitze bat ematen da eta funtzioko kognitiboa ere murriztu egiten da (21,22). Lan-gaitasunean eta erlazio-sozialetan ere eragin negatiboa du (28).

#### ***4.1.2.2 ANSIIETATEA***

Ansietatea da beste faktoreetako bat, pazienteen bizi-kalitatean zuzenki murrizten duena (8). EA pairatzen duten gaixoen artean, prebalentzia %37koa da (22).

#### ***4.1.2.3 ESTRESA***

Estres-maila altuek depresioan duten eraginaz gain, EA duten pazienteen kasuan beraien sintomatologia areagotzea eragiten dute (21). Ikerketa ezberdinek frogatu dute estresaren eta EAren erantzun kliniko txarraren arteko erlazioa. Honek, EAren hasiera eta bere eboluzioa, intentsitatea eta sintomen maiztasunean eragina dutela zehatztuz. Ebidentziak ere adierazi du erlazio zuzena dagoela estresaren eta bizi-kalitatearen artean (20,24).

Estres emocional eta psikologikoak sistema neuroendokrinoan eragina dute. Sistema immunologikoa eta neuroendokrinoa elkar komunikatuta daudenez, estresaren eraginez alterazioak ematen badira sistema neuroendokrinoan, honek aldaketak eragingo ditu sistema inmunologikoan, EA moduko gaixotasunetan kalte eginez (20).

Gironan egin zen ikerketa batek erakutsi zuen, pazienteak gero eta egokituagoak egon egoerara, orduan eta agerraldi gutxiago zitzutela eta egoera estresanteak izateko aukera gehiago zitzuten heinean, agerraldiak izateko aukerak areagotzen zirela (24).

### **4.1.3 ONDORIO SOZIALAK**

Normalean, neurologiako konsultara doazen pazienteen kasuan artatzea ondorio fisikoetan zentratzen da, behar psikosozialak alde batera utzita (21). Lehen aipatu den

moduan, ardatz biopsikosozialaren erabilera gaixotasun hau duten pertsonetan ezinbestekoa da (7,21,24,29).

Bizi-kalitatean eragin gehienetan duten aldagariak ez dira medikoak, baizik eta osasun mentalarekin eta erlazio sozialarekin erlazionatutakoak. Beraz, egoera psikosoziala tratatuta, pazienteen bizi-kalitatea era adierazgarri batean hobetzea lortu daiteke (24). Pertsonaren egoera emozional eta sozial ezegokiak tratamendua eta gainerako aholkuak ez betetzea ekar dezake, honek zeharka gaixotasun prozesuan eraginez. Horregatik, pazienteari arreta integral bat ematea oinarrizko da (31).

Gaixotasunak, erlazio interpersonalak kaltetzen ditu, baita lanekoak eta sozialak ere (32). Pazienteek adierazten dute gaixotasunak estigmatizazioa sortzen duela beraien arlo sozialean eta erlazio galerak ematen direla. Askotan hau, sintomatologiaren ondorioa izanik (9,17).

Ondorio sozial ohikoen artean egokitze arazoak, erlazio arazoak, aktibitate sozialen murritztea, bizitza-helburuen etetea, laneko arazoak eta ondorioz diru-sarreren murriketak daude. Orokorean, isolamendu soziala ekarri dezakeelarik (25).

#### **4.2 ESKLEROsi ANIZKOITZAREN ONDORIOEI AURRE EGITEKO ERIZAINTZA ZAINKETAK**

Gaixotasunaren diagnostikoa eta bere manei terapeutikoak pazientearen behar eta aukera berriak sortzen ditu, egoera konplexu eta dinamiko bat sortuz non osasun asistentzia kalitezkoa eta individualizatua izan behar den (15). Atentzio hau normalean lehen arreta mailan eta ospitaleko arreta mailan ematen da (15,29). Bertan, ikuspuntu holistiko baten bidez sintomak murritzten eta bizi-kalitatea hobetzen jarduten dute osasun-profesionalak, non erizainaren papera funtsezkoa den (29). Elorza Puyadena et al.-ek argitaratutako ikerketak argi azaltzen du erizainak eman beharreko arreta holistikoaren garrantzia, pazienteak diagnostikoa jasotzen duen lehenengo momentutik (14).

Erizaintzako profesionalak, EA duten pazienteen beharrei erantzuteaz gain, beste zeregin batzuk azaltzen ditu: kasu bakoitzaren ebaluazioa, sintomen maneria, frogan interpretazioa, diagnostikoaren komunikazioa, arretaren koordinazioa talde multidiziplinarraren kide izanez, heziketaren promozioa, eta ekipoaren eta pazientearen arteko komunikazioaren mantenua (10,13,33). Garrantzitsua da ere, tratamenduaren atxikituran eta plan terapeutikoaren jarraipenean erizainak lan egitea. Gainera, honen monotorizazioa eta bigarren mailako efektuen kontrola ere eramatzen du (13). Hau

honela, EAren manei positiboan oinarrizko pilare bilakatzen da. Sintomen detekzioaz gain, honen balorazioan ere jarduten du erizainak (10,14).

Terapia eraginkor moduan erizaintza-planaren erabilera zehazten dute artikuluek *North American Nursing Diagnostic Asociation*-en (NANDA) oinarrituz (10,15,25,34). Honetarako, Europa mailan, *National Multiple Sclerosis Society*-k 2012. urtean erizaintzako gida azkar bat argitaratu zuen EA duten pertsonak tratatzeko, dokumentu hauen garrantzia azpimarratuz. Gida horretan, paziente hauei egokitutako erizaintzako diagnostiko posibleak gomendatzeaz gain, hauei lotutako helburu eta interbentzio posibleak aipatzen dira, gero paziente bakoitzari moldatu ahal izateko (15,34). Hauen artean erabilienak, jarduerarekiko intolerantzia, antsietatea, nekea eta erorketa arriskua dira (34). Ikerketa askok frogatu dute erizaintza metodologiak zainketa plan estandarizatuekin lortzen duen eraginkortasuna, paziente hauen bizi-kalitatea hobetze aldera (15,25,27,29). Honen harira, erizainak gaixotasun honetan egin beharreko beste funtziotako bat, paziente hauen arretara zuzendutako protokolo eta gidak garatzea izango da, zainketen bizi-kalitatea hobetze aldera. Alor horretan hutsunea nabaritu dutela diotelako adituek (10).

Gainera, aipagarria da osasun-hezkuntzan egiten duen lanaren garrantzia bai pazientearekin baita familiarekin ere (10,25). Iturri ezberdinak azpimarratzen dute erizainak arlo honetan duen garrantzia, hau terapia eraginkorra dela adieraziz (14,15,18,27). Erizain kontsultaren helburua pazientea ahalik eta autonomoena izatea, bere osasuna zaintza, osasun arazoak ezagutzea, sintomak kontrolpean izatea, osasun-hezkuntza jasotzea eta konplikazioak ekiditea da (25). Aipatutako osasun-hezkuntzaren bitartez pazienteen eta familiaren ezagutzak zabaltzen dira, osasunaren ezagutzak hobetuz, tratamenduarekin erlazionatutako gaitasunak handituz eta aurre egiteko mekanismo ezberdinak garatuz (15).

Bestalde, EAren kudeaketaren zati handi bat errehabilitazio fisikoak hartzen du, lehen aipatu diren sintoma fisikoei begira. Honen helburua EBOJak, indarra, erresistentzia, flexibilitatea, mugikortasuna, oreka, funtzionamendu sexuala, larruazalaren integritatea, seguritatea, nekearen murriztea, depresioa, antsietatea... hobetza da (23). Gainera, gaitasun funtzional maximoa lortzea, konplikazioak ekiditea eta independentzia-maila altuagoa izatea lortzen du (32). Errehabilitazioak pazienteen bizi-kalitatea hobetzen du, osasuna orokorrean, aktibitatea eta baita bizitza soziala ere (35). Errehabilitazioko erizainak zehazki, paziente hauen EBOJak eta autozainketan lagundu dezakete, bizi-kalitatea hobetuz (23,32). Nahiz eta erizaintza zainketa espezializatuak errehabilitazioko alorrean alderdi garrantzitsua izan, ikerketa gutxi egin dira alor honetan erizainak izango lukeen paperaren inguruan (35).

Lehenago aipatu den moduan, nekea ezgaitasun handiena sortzen duen sintoma da eta heziketa programa ezberdinak daude honen gestiorako (17,19,27). Ikerketa ezberdinek ondorioztatu dute hauetan ariketa fisikoa eta heziketa direla interbentzio eraginkorrenak (27). Kasu honetan, egin beharrekoak eta erizainak gomendatu beharrekoak hauek dira: aktibitate ezberdinak deskantsuarekin txandakatu, ingurugiro lasaia sortu, estres-maila ebaluatu eta murritztu, loaren patroiak ebaluatu eta estresaren maneiuan laguntza bilatu (3).

Hala ere, laguntza fisikoa ez da nahikoa gaixo hauen kasuan. Lehen esan bezala, arlo afektiboak bizi-kalitatean eragin handia du, baina horrez gain, beraien artean guziz erlazionaturik daude, bat kaltetuta badago bestean eragin zuzena duelarik (9). Horregatik, kontuan izan behar da zainketak multidimentzialak izan behar direla, aspektu fisiko, psikologiko eta emozionalak gain hartuz (26).

Nekeak estresean duen eragin negatiboa ikusita, eta lehen aipatu den moduan arlo afektiboak arlo fisikoarekin duen erlazioa aztertuta, estresaren maneiak pazientearen aspektu asko hobetzea eragingo duela argi gelditu da (3,9). Estresa gainditzeko estrategia egokiak erabiliz, gaixotasun neurologikoen susceptibilitatea gutxitu daiteke eta honen eragina murritztu (24). Maureen eta Breintestein-ek garatutako ikerketa batek erakutsi du erizaintza interbentzioek nekea eta estresaren maneiuan lagundi dezaketela, pazienteen osasun fisiko eta emozionalean eraginez (21). Beharrezkoa izaten da erizainak estresaren estrategia ezberdinak ezartzea, agerraldiak murritzeko. Gehien erabiltzen den teknika erlaxamendua da, metodo simple eta erraza delako, baina aldi berean oso eraginkorra. Erizainak erabiltzen duen beste teknika bat erlaxazio muskular progresiboarena da. Teknikak zehazki honela funtzionatzen du: talde muskular ezberdinen tentsioak eragiten ditu, jarraian erlaxatzeko. Honek, eragin zuzena duelarik pazientearen nekean, loaren kalitatean, estresean eta depresioan (20).

Arlo psikologikoan laguntzeko, artikuluek osasun mentalean espezializatutako erizainaren eskutik joan beharko zela azpimarratzen dute (26,30).

Azkenik, arlo sozialean, garrantzitsua izango da erizainak langile sozialekin kontaktuan ipintzea, tramitazioan laguntzeko edota beraiengan eragin ditzaketen diru-laguntza ezberdinen informazioa lortzeko helburuarekin (14).

Bestalde, kontuan izan beharreko zerbait da zenbait kasutan paziente hauek zailtasunak izaten dituztela zerbitzuetara iristeko eta baliabideei etekina ateratzeko. Arrazoia hauak izaten dira: garraiobide zailtasunak, mugitzeko zailtasunak, finantzazio mugatua eta errekurso mediku urriak egotea gune metropolitanotan. Hau honela, ikerketa ezberdinak jarri dira martxan interbentzioak presentzialki ezin direnean izan, egon daitezkeen

aukerak aztertzeko. Aukera horien artean azaltzen da teleosasuna deritzon programa EA duten pazienteentzat (21). Honek eraginkortasuna frogatzeko, ikerketa bat egin da Estatu Batuetan. Bertan, EA duten hamar paziente lortu eta banan-banan beraien egoera biopsikosoziala aztertu ostean, erizainarekin bildu eta helburuak planteatu dizute, hau betetzeko zainketak finkatuz. Jarraian, bost dei telefoniko jaso ditu pazienteak, bertan bere eboluzioa nolakoa den aztertu eta helburuak birplanteatzen dituztelarik profesionalarekin batera. Ikerketa hau egin ostean burututako txostenak frogatu du metodo berri honen eraginkortasuna, pazienteen bizi-kalitatean eragin positiboa baitzuen.

Helburu berdinarekin Turkian egindako ikerketa batek adierazi du zainketak etxeak emateak onurak dituela, NANDAn oinarritutako zainketa-plan baten bitartez (25). Bertan, pazienteak etxetik atera gabe, erizainak paper garrantzitsua betetzen du heziketaren alorrean eta osasunaren ebaluazioan, pazienteen jarraipena erraztuz. Ikerketa honetan, pazienteek beraien etxeak zortzi bisita jaso dituzte erizain baten esku. Lehenengo bisitan, pazienteen bizi-kalitatea ebaluatu da. Gainerako bisitetan, paziente bakoitzaren egoeran eta NANDAn oinarritura, zainketa-plan bat ezarri zaie eta honen arabera jokatu da. Ikerketa honetan erizainak egiten duen lanari esker, pazienteek sintomak murriztea eta bizi-kalitatea hobetzea lortzen dela frogatu da. Ondorio gisa, ikerketa honek eta artikuluan azaltzen diren beste batzuk azpimarratzen dute erizainak etxeak emandako zainketak efektu positiboak dituztela EA duten pazienteetan.

Berdina frogatu da Granadan egindako beste antzeko ikerketa batean. Bertan, kasu kliniko bat aurkezten da, eta erizaintza prozesuan eta NANDAn oinarritura, zainketa-plan bat ezartzen da, etxeko zainketetan oinarritzen dena. Geroago, plan horren eraginkortasuna frogatzeko helburuarekin, beraien bizi-kalitatearen aldaketa aztertuko delarik (29).

#### **4.3 ESKLEROsi ANIZKOITZAREN INGURUAN ESPEZIALIZATUTAKO ERIZAINA**

Orain arte ikusi den moduan, gure inguruan ez dago kontsentsu bat paziente hauek artatu behar dituen erizain motaren alorrean. Kasu askotan, erizain orokorra da paziente hauei zainketak ematen dizkiena (10,14,33). Badaude beste kasu batzuk, errehabilitazioko erizaina izatea gomendatzen dutenak (23,32,35). Baita, osasun mentalean espezializatutako erizaina izan beharko dela diotenak (26,30). Eta azkenik, guztiak batzen dituen EAn espezializatutako erizaina aipatzen dute gutxi batzuk, nahiz eta hau oraindik ez egon garatuta guztiz, are gutxiago gure lurraldean (12,36,37).

